

## 10 urte eta... akabo?!

### Heldutasunera iristean agur esan digute The Allnightersekoek



Notiziak izoztuak utzi zituen zaleak, inork ez baitzuen espero. Lehen diskoa grabatzea kostatu zitzairen, baina 1994tik gauzak zeharo aldatu ziren. Bartzelonako Al.leluia disketearekin harremanetan jarri eta gero heldu ziren *sixties*-ak gogora ekarri dizkigun boskotearen unerik goxoenak.

Etenik gabeko birak, Municheko Beat-o-Mania festival ezagunean bi partaidetza, *Keep on keepin'* on diskoaren salmenten hazkundera... The Allnightersen urte onenak etortzekoak zirela zirudien. Baina ez. Geroarterik ez, gainera. Agur esan eta trasteak alboratu dituzte. Hori bai. Azken harribitxia laga digute, *Ten long years* izenekoa, arloko kritikarien iritziz disko paregabea.

■ **Musikalki heldutasuna lortu duzuen itzali dituzue gitarrak...**

Agian bai. Orainsu egindako biran horixe esan didate askok, taldea ezin dugula desegin, alegia. Nolanahi ere, nik nahiago dut musika mundutik ate nagusitik irten eta ez gero, inork gogoan ez zaituenean.

Itaki Igu Garcia The Allnightersen ahotsa da. Duela hamar urte, 1988an, txikitako lau lagunekin elkartu eta musika talde bat sortzea erabaki zuen. Betiko istorioa,

bai, baina berezitasun batekin: ez zegoen Euskal Herrian haiek egiten zuten musika egiten zuenik. Grabatzeko orduan ate asko itxi zizkien horrek. «Ez pentsa, baina, loa kendu zigunik, guk gureari heldu baikeon gustura».

Bai, badakite inor gutxi egiten duela, modatik at dagoela eta hori guztia... baina zer egingo dugu? Mutil hauek biniloa nahiago dute. «Bildumazale amorratuak gara». Haien zaleek ere, itxuraz, gustu bera dute, «konpaktuan baino kopia gehiago saltzen ditugu biniloan». Baliteke arrazoia izatea eta, The Allnightersekoen musika estiloa bat etortzea *plastikoak* duen erromantizismo kutsuarekin. Esperientzia egin dezagun. Har dezagun *Ten long years* lana, gasteiztarren azkena, eta jar dezagun diamantezko orratza ildoaren baitan. Iguk erakutsiko digu bidea.

● *Time* kantak erakusten du ondoen taldeak ha-

■ **Zer aldatu da duela hamar urte musika talde bat osatzea erabaki zuen lagun boskote horretan, hartu duen erabakia hartzeko?**

Gauza asko. Dagoeneko ez gara horren lagunak. Musika arloan, ordea, bakoitzak berean asko hobetu du. Gure gustuko taldeen biderei ekin genion hasieran: The Rolling Stones, Jazzbirds, Animals... Egun, gure musika propioa egiten dugu, jasotako eragin guztiak gure erara uztartuz. Gure azken diskoan blues, funk, jazz, groove, beat eta beste hainbat eritmo entzun ditzakezu.

■ **Tomas San Miguel, Soziedad Alkoholika, The Allnighters... Bakoitzak bere estiloan, hiriko musikari eta talde onenek kan-**

poan saltzen dute etxean saltzen ez dutena.

Nik beste era batera esango nuke: etxean saltzeaz gain, kanpoan saltzen dutela. Soziedad Alkoholika, esaterako, Euskal Herrian arrakastatsua da, baina askoz gehiago kanpoan.

Guri antzeko zerbait gertatu zaigu. Euskal Herriko tabernetan jo egin dugu, baina festibaletan ez. Kanpoan, osterat, hainbat festival handitan jo dugu: Reus, Gijon, Leon, Munich... Hemen euskal rock erradikala edo reggaea egiten ez bazenuen, heavy izan behar zenuen. Edo pop-rocka, baina euskaraz.

■ **Beat-a ingelesez abestu behar al da?**

Baietz uste dut nik. Saiatu ginen gaztelaniaz abesten (nik euskaraz ez dakit), baina asko galtzen zuen. Gure musika oso erritmikoa da eta gaztelania ez da horrekin bat datorren hizkuntza bat. Sekula ez zitzaidan niri bururatuko trikitixa hartu eta ingelesez edo gaztelaniaz kantatzen hastea.

■ **Ingelesez hobeto eta, ahal izanez gero, zuzenean...**

Bai, zuzeneko maite dugu. Rock and rolla, soula, heavya eta holako musikak zuzenekoak dira, jendearean hainbat sentimendu erakusten duten musikak bai-

tira: berotasuna, grina, gorrotoa... Popa, aldiz, hotza da.

■ **Zer moduz joan da azken bira?**

Zoragarria izan da. Bartzelonan zein Bilbon jo genuenean konpetentzia itzela genuen beste lokaletan. Nolanahi ere, gure saioak betetzea lortu genuen. Giroa izugarria izan da, eta gu ere nahiko ondo egon gara. Oso pozik geratu naiz zaleen harrerarekin.

■ **Eta orain zer?**

Bada, ez dakit. Taldeak ezin zuen iraun, hiruk utzi behar zutelako. Zaila egiten zen gure estiloan jardun daitezkeen hiru musikari aurkitzea. Ez da, gainera, gure estiloan jardutea soilik, erraza baita morroi bat hartu eta mozorrotzea. The Allnighters bizitzeko filosofia jakin baten isla zen, gu bostena. Horregatik, taldea desegitea erabaki genuen.

■ **Zure emazteak eta semeak eskertuko dizue.**

Bai, hala da. Alde horretatik nire bizitzak hobera egingo du. Horrenbeste kanpoan jotzen zuen taldea izaki, denbora gutxiaguen familiari eskaintzeko. Emazteak ulertzen zuen, rolloa zenbateraino gogoko nuen bazezkie-eta, baina gogorra egiten zitzaigun.

asier pz. de karkamo

## Biniloan, noski.

mar urteotan izan duen bilakaera. Oso landua da, hainbat zati oso bereizi baititu. *Soul*-aren eremu psikodelikoenean sartu gara. 70eko *blackplotation*-a dakarkigu gogora. Badakizu, auzo beltzetako film haiek... Oso *funky*-a ere.

● Oso gustukoa dudan beste bat *Waiting at the station* da, diskoko bigarrena. Oso azalezko doinu *sureño*-a du abestiak. Lousianako talde batek egina dela dirudiela esan digu batek baino gehiagok. Ahotsak eta haizeak oso ondo sartu dira. Zoragarri geratu dela iruditzen zait.

● *City lights*, nik abesten ez dudana kanta bakarra. Ernestok abestu du, eta entzun eta gero horretan jardun beharko lukeela iruditzen zait, zinez. Badakizu, Ernesto! Ahots beldurgarria du. Antzina egiten zen formula bat erabili dugu, hots, ahotsaren bi hartze grabatu eta bata bes-

tearen gainean jarri. Biak akoplatu eta efektu bitxia sortzen da, oso polita. *Blues* zingiratsu psikodeliko arraroa egiten dugu hasieran. Kantaren amaieran gitarra punteo oso sendo bat markatzen da. Itxiera potentea du oso.

● *Look away your happiness*. Kataluniako Maquina taldearen bertsio bat da. Jatorrizkoarekin zerikusi gutxi du gure bertsioak, erabat eraldatu baitugu. Jatorrizko kanta *beat* psikodelikoa zen, *blueseroa*. Gurea *funky* gogoa da, oso dantzagarria, @Iguatekeroa@-. Flauta batek ahotsa ordezkatzeko du. Radio 3n, esaterako, oso ondo sartu den kanta da.

Eta hori da, oraingoz, guztia. Iguk utzi egin behar gaitu eta, hortaz, bera gabe segitu beharko duzue. Baina zer deritzozue? Biniloan hobeto, ezta?